

# Elkarbizitzan sakontzeko urratsa

Andoaingo Udalak "Memoria partekatu baterantz" txostena aurkeztu du jendaurrean, gatazka politikoak sortutako biktimak eta zeharkalteak gogoan hartuz / 2-3



**Eguberrietako hitzorduak: Olentzero eta Mari Domingi, San Silbestre lasterketak** / 6-7, 10-11



**Besabitik Adarrara mendi igoera gaez, larunbat honetako irteera Zanpatuz taldearen eskutik** / 7



## Neguaeren hasierako egun magikoak

Urteko azken Aiurri, Eguberrietako hitzordu guztiak eta kultur ekitaldi nabarmenenak / 1-16



**Abenduak 29, larunbata**

17:30. Euskaraz

**Sarobe AEG. 3 €**

Sarrerak online eros daitezke





Carrere alkatearen alboan Izagirre (EAJ-PNV), Lainez eta Garcia (PSE-EE), Zulueta (EH Bildu), Hernandez (Ganemos) eta Mourinho (Irabazi) Andoaingo Udal korporazioko zinegotziak eta bizikidetzako mahaiakideak. AIURRI

# Iraganera begirada jarrita, etorkizunerantz bidea egiteko

Gatazka politikoak azken hirurogei urteetan Andoainean izan duen eragina eta sortu dituen kalteak aztergai izan ditu Argituz elkarteak, Andoaingo Udal bizikidetzako mahaiaren eskariz. Abenduaren 12an aurkeztu zuten Basteron, jendetzaren aurrean

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Berrehun lagunentzat tokia dago Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, "Memoria partekatu baterantz" txostenaren aurkezpen ekitaldirako ikusle ez betea. Ikuslearen esateko modu bat da, bertako guztiak Argituz erakundearen azalpen zehatzen entzule izan baitziren. Izan ere, egun horretan, adierazi zena garrantzia handikoa baitzen. Bereizketa egiten hasita, ikusle eta entzule horien artean txoste-

nean parte-hartze zuzena izan duten herrikideak zeuden: Atzoko eta gaurko Udal ordezkariak, ETaren eta Batallón Vasco Españolen biktimak, kale borroka pairatu dutenak, torturatuak, preso ohiak...

Gatazka politikoak, eta zehazki XXI. mende hasierako gertaera ilunek, Andoainera zatiketa eta ezin ikusi handiak ekarri dituzte. Bastero Kulturgunean, ordura arte inoiz ez bezala, gatazkaren alde bateko eta besteko

pertsonen toki eta ekitaldi berbera partekatu zuten.

Jendaurreko ekitaldia hasi baino ordu bate lehenago, erakusketan aretoan bildu zituzten txostenaren parte-hartze zuzena izan duten pertsonak. Besteak beste, Carlos Sanz, Joxan Barandiaran eta Estanis Amutxastegi Andoaingo alkate ohiak; duela 25 urte ETaren atentatuan aita galdu zuen Blanca Villafañe; Chema Herzog PPko zinegotzi ohi eta aspaldian Andoainean albatari

lanetan aritu zena; Nerea Estanis Amutxastegiren alaba; bizipenak partekatu zituzten Iñaki Otamendi, Marta Trutxuelo edota Ramon Urrutia andoaindarrak. Inori baino lehenago, errespetuz eta esker onez, haiei guztiei "Memoria partekatu baterantz" txostenaren ale bana eman zieten. 19:00ak iristear zirenean ekitaldi aretoan hurbildu ziren denak. Eta hortxe hasi zen jendaurreko ekitaldia, aretoa jendez beterik zegoela.

## Eskertza

Ana Carrere alkateak, ordezkariak duten alderdi guztiak alboan zituela, hasiera eman zion ekitaldiari. Eskertza adierazi zien, bereziki, txostenaren parte hartu duten guztiei.

Gatazkaren biktimen zuzenen bidea eskaini eta gero, Argituzeko ordezkariak txostenaren lanketari buruzko azalpen zehatza eskaini zuten. Giza eskubideak oinarritzat hartuta, ia 300 orrialdeko txostena, iraganean gertatu zen guztia biltzeko ahalegina da. Datuak aurki daitezke, izen-abizen asko, lekukotza ugari eta baita etorkizuna lantzen hasteko hainbat gomendio ere. Argituzen hitzetan, "landutako txostena memoria kolektibo bateratzaile eta partekatuen bidean aurrera egiteko tresna baliagarria izango dela irizten diogu".

Txalo artean amaitu zen ekitaldia. "Beharrezkoa zen", horixe Basteron ziren askoren sententzia.



## Txostena elebitan eskura dago

Liburu bakarra da, mardula, bi hizkuntzatan argitaratu dena. 500 orrialdetik gora dira, Andoaingo memoriaz luze eta zabal jarduteko. Datu xehez eta hainbat andoaindarraren lekukotza gordinen osatuta dago. Aurkezpen ekitaldian dozenaka liburu banatu bazituzten ere, liburuaren hainbat ale geratzen dira. Ataria arreta zerbitzuan eskatuz gero, liburuaren dohainik eskuratu daitezke. Agortu arte, hori bai. PDFan on line dago.

## Andoaingo sufrimenduaren lekukotzak

Txostenaren aurkezpena izan zen Basterora dozenaka herritar erakarri zituen arrazoia. Ekitaldian zehar, ordea, garrantzia berezia hartu zuen pantailan bota zuten bideoa. Zortzi minututan gatazka politikoak eurengan eragina izan duen bost herritar agertu ziren. Guztiek bertan bitzitako gazta politikoagatik sufritu dute, sufrimendu horren sorburua kasu batetik bestera oso ezberdina izan arren. Hona, bideo osoaren lagina:

### Nerea Amutxastegi

Estanis Amutxastegi alkate ohiaren alaba da. Etxean pairatu izan dituzte ETaren jarduera armatua eta kale borroka. Azken horrek bereziki min handia eragin diola adierazten da bideoan. Azalpen ugari ematen ditu, hona lagin bat: "Niretzat oso garrantzitsua izan da txosten honetan parte hartu ahal izatea, nire istorioa eta bizipenak kontatzeko aukera eman didatelako. Uste dut Andoainen aurki daitezkeen sentsibilitate guztiei txosten honetan ikusgarritasuna ematea garrantzitsua dela, denon artean elkar uler gaitezen eta bata bestearen tokian jar gaitezen."

Kontzientzia naiz Andoainen sufrimendu handia egon dela urte askoan, eta ez bakarrik ETaren terrorismoa sufritu dutenena. Baita beste moeta bateko biolentzia sufritu dutenak ere, esaterako, torturak. Eta argi gera dadila torturen aurka erabat nagoela, eta gizatasun gabeko jarduera iruditzen zaidala".

### Xabier Lekuona

80ko hamarkadako atxiloaldian pairatu zituen torturak salatu ditu, txostenean: "Bizikidetzaren inguruko txostena sufrimenduaren testigantza izan beharko litzateke, gutxienez batak bestearen sufrimendua ezagutzeko balio beharko luke, gero norberak nahi dituen konklusioak ateratzeko. Aitortzen dut txosten honen gaiak deseroso jartzen nauela, niretzat ez da erraza horrelako gauza baten inguruan publikoki hitz egitea eta Andoaingo alderdi politikoak ere berdin dabilzala uste dut, urduri, ni orain hemen nagoen bezala. Horregatik eskerrak eman nahi dizkiet bai udalari eta bai alderdi politikoei txosten hau bultzatu izanagatik".

### Mari Paz Artolazabal

Jose Luis Lopez de Lacalleren alargunak Andoainen egon den haustura hizpide izan zuen bideoan: "Terrorismoak urte luze hauetan elkarbizitza desegin du gure herrian. Etorkizunera begira, sufrimendu horren sortzaileek eta berarekin ados zeudenek egin zutena oso gaizki zegoela esan beharko lukete, eta baita ez zela inoiz gertatu behar adierazi ere. Bakoitzak bere borondatea jarri beharko du egoera hau pixkanaka aldatzen joateko".

### Imanol Ansa

Ultraeskuindarrek, BVE edota TripleAren bitartez, izua eta mina eragin zuten 70eko hamarkadaren amaieran eta 80 hamarkadaren hasieran. Joxe Ramon anaia hil zuten, 1979an. Bideoan Imanolek txostenaren baliagarritasuna defendatzen du: "Gazteak eta ez horren gazteak Andoainen gertatu zenaren berri izateko beharrezkoa da. Esango nuke 40 urtetik atzeragoko jende gutxi dakiela Andoainen gertatu zenaren berri. Guk gure etxekoa badakigu, baina beste zenbait historia ez".

Jokabide enpatikoa erakusten dute ansatarrek: "Gorrotoa alde batera utzi eta bakoitza besteen minaren tokian jarri beharko genuke. Etxean pasa dugunok badakigu zer nolako sufrimendua pasa dugun. Bakoitzak besteen azalean jarri beharko luke".

### Mikel Arregi

EAJ-PNVko hautetsia izan da eta azken urteotan Elkarbizi elkartearen eskutik memoriaren eguneko ekitaldiaren antolatzaileetakoa: "Jendearentzat ezezagunak diren gauza asko gertatu dira. Iragana ezagutzea edo ez ezagutzea oso desberdina da. Oroimena, memoria kontutan izaten ez bada gertatutakoa desagertu egiten baita, eta hori ezinezkoa da. Iragana eta oraina hizpide duten txosten guztiak dira onuragarriak, eta horregatik Andoainen egin den txostena ezinbestekoa da. Ideologia guztien ginetik, alderdi politikoen ginetik, bestearrekiko errespetuak izan beharko luke elkarbizitzarako oinarria. Horretarako nahitaezkoa da bakoitzak jarrera baikorra erakustea".

## Argituz elkartearen txostena, Andoaingo Udalaren enkarguz egindakoa



Carrere alkatea, Izagirre zinegotzia. AIURRI



Argituz elkarteko ordezkariak. AIURRI



Jon Mirena Landa. AIURRI



Alberro, Barandiaran eta, aurreko ilaran, Mariano Ferrer. AIURRI



Egibartarrak eta atzean Amutxastegitarak. AIURRI



Mari Paz Artolazabal, Alain Lopez de lacalle semearekin. AIURRI



ZABALIK

IYUYA URRUTIA

## Mari Domingi

Gaiean ditugu berriro ere Gabonak eta baita data horiei dagozkien ohiturak eta tradizioak ere. Horiekin batera etorriko da Olentzero eta, hortxe aldamenean, distiratsu, Mari Domingi. Baina Gabonek horiekin batera ekartzen dizkigute hamaika poz eta *buruhauste!* Hona hementxe nirea:

Zer esan etxeko txikienei, Mari Domingi nor den eta zer egiten zuen galdetzen dutenean? Orokorrean, kezka gainetik azkar kentzeko moduko erantzuna ematen diegu: Olentzeroren laguntzailea dela, gutunak jasotzen dituela edota jostailuak antolatzen laguntzen diola. Egia da haurrek galdetzen diguten guztia ez dugula zertan jakin, baina gaiari buelta pare bat eman eta arduraz jokatzeko komeni zaigu. Ikus dezagun, bada.

Mari Domingi duela 20 urte agertu bazen ere, hainbat adituk eta dokumentu zaharrek ez dute garbi azaltzen emakume hori nor eta zer izan zen. Izan ere, lehenagokoa den Olentzeroren aztarnek diote ez duela inoiz bikoterik, lagunik edota andrerik izan. Besteak beste, Mari Domingi ez da Barandiaranen mitologia liburuetan inon agertzen; oker ez banago, gaurdaino eguberri kanta batean gona zaharra jantzita agertzen den emakume bat besterik ez da.

### EGIA ESAN, MARI DOMINGI OLENTZEROREN LAGUNTZAILE HUTS GISA AGERI ZAIGU

Olentzero bera kalera ateratzea, hasieran, 1956an Iruñean herritarren artean euskara sustatzeko sortutako ekimena izan zen. Gaur egun, euskararen egoera hobetu zaigu, baina gizartearen sekulako genero-desberdintasunak ditugunez, neska-mutilen

artearen berdintasuna sustatzeko Olentzeroren aldamenean jarri dugu Mari Domingi. Hala ere, berdintasunaren izenean egindako guztia ez da berdintasunarentzat onuragarri bilakatzen. Izan ere, sexuen arteko berdintasuna bilatzen duten ekinbide batzuek, hain justu, aurkakoa lortzen dute. Mari Domingi, emakumezko erreferente bat eskaintzeko munduratu da, baina, egia esan, Olentzeroren laguntzaile huts gisa ageri zaigu; hau da, Olentzero da haurrentzat axola handikoa.

Bestalde, Olentzerori bikote-laguna sortu diogun unean bertan, Olentzeroren beraren generoa definitu dugu. Olentzero, maskulinoa, eta Mari Domingi, femeninoa. Eta Olentzerok ez badu sexurik? Leitzan esan izan dute, garai batean Orantzaroa emakumezkoa ere izan zela. Horrez gain, Mari Domingi aldamenean jartzean, ez gara konturatu haurrei bikote tradizional heterosexualaren eredu saltzen ari garela. Ezin al ditu opariak bikote homosexual batek ekarri? edo Olentzero alarguna, ezkongabea edo mutilzaharra izan? Egia esan, konturatu gabe, baina politikoki zuzena dena saltzen ari gara.

Gure mitoak eta mitologia egokitu eta tradizioak birziklatzea beharrezkoa da. Horregatik, Mari Domingiren sorrera neurri batean ulertu eta babesten dut; gainera, etorkizunean haren istorioa hobeto eraikitzen joango garenaren itxaropena dut. Kontuan izan behar dugu, ordea, pertsonaia bat sortu aurretik, horrekin zer lortu nahi dugun; izan ere, pertsonaia maskulino baten eragina orekatzeko intentzioz asmatu diren pertsonaia femeninoek ez dute nahi adinako garrantzirik izaten. Emakumea sustatzeko, emakumeak berak izan behar du protagonismoa eta, horretarako, gure mitologian badugu non astindu: erreketako eta itsasoko laminak, Anbotoko Mari, sorginak...

## POSTONTZIA

### Iñistorrak aurten ez du Santomas egunik antolatuko

**IÑISTORRA EUSKALTZALEEN BILTZARRA**  
URNIETA

Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak aditzera eman duenez aurten, abenduaren 21ean, ez du Santomas eguneko jairik antolatuko Urnietako San Juan plazan. Azken bederatzi urteetan jai-giro ederra jarri izan du bere Santomas eguneko txistor eta talo azokarekin, bere usadiozko sagardo eta sagartarta lehiaketekin eta, bereziki, Eguberrietako saskiaren eta oparien zozketarekin. Usadiozko sagardogileen lehiaketa, esate baterako, Euskal Herriko bakarra da, etxerako sagardoa egiten duten baserrien artean hamar-hamabost lehiatzaile inguru bildu izan duena urtero.

Orain hamar urte hasi zen Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra Santomas eguna antolatzen Urnietan, urnietarrek aukera izan zezaten herrian bertan tradizio handiko ospakizun hori bizitzeko. Lehenengo urtetik bertatik arrakasta handia izan zuen abenduaren 21eko arratseko jaiak, eta horrelaxe urtero antolatzen eta osatzen joan da, esan bezala,

txistorraren eta sagarraren inguruko jaiak eginez.

Usadiozko sagardogileen lehiaketa izan da, non profesionalak ez diren sagardogileek parte hartzen duten, ekintzarik berezietakoa, hori eta Urnietan azken urteetan osatu den talogileen taldea plazan lanean jartzea. Gainera, Eguberrietako saskiaren zozketak, sagardo irabazlea enkantean jartzeak edo bi gazten pisua asmatzeko apustu saioak bizitasun berezia eman diote jaiari.

Aurten, baina, ez da jaiak antolatuko, irailen Iñistor eguna antolatu ez zen bezala Sanmiel jaietan. Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarretik bi arrazoi aipatu dituzte aurten Urnietako plazan kale egiteko: batetik, behar beste lagun ez elkartzea jaiak egoki den bezala antolatzeko. Azken urteetan ez dute behar beste bazkide izan jaiak antolatu ahal izateko eta hori nabaritu egin omen dute, jaiaren eta bertan parte hartzen dutenen kaltetan. Horregatik, gauzak erdipurdi eta arazoekin antolatzea baino nahiago izan dute kale egitea, eta biltzarraren baitan hausnarraldia zabaltzea

argitzeko etorkizunean bere jardun horiekin jarraitu ahal izango duten ala ez. Iñistorran ez dira bazkide asko, eta diren horien artean batzuek baino ez dute parte hartzen antolakuntzan.

Bigarren arrazoa ekonomikoa da: Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra ez dator bat azken urteetan Urnietako Udalak bere jardunerako eman dion dirulaguntzarekin; horrela adierazi izan dio hainbat urtetan baina Udalaren aldetik ez du erantzunik jaso. Arrazoi ekonomiko hori dela-eta, baina baita nagusiki behar beste jende ez izatearen arrazoi edo muga hori, 2018. urtean Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak ez du jarduerarik burutu Urnietan.

2019. urtearen lehen hiruhilabetean hausnarketa saioa egingo du Biltzarrak herrian, argitzearren gauza izango ote diren berriro bere ekimenei heltzeko edo ez; herrigintzak eta euskalgintzak konpromiso sendoagoak behar baitituzte Urnietan; ez hitzez bakarrik, bereziki ekintzez.

Hausnarraldi horren ondorioak jakinaraziko dizkie Iñistorrak urnietarrei.

## POSTONTZIA

### Gora Kaletxiki txaranga

**JEXUX IBAÑEZ IGERATEGI**  
GORA KALETXIKIKO LEHENDAKARIA

Azken 15 urte hauetan andoaindarrak ohitu egin dira herriko txarangaren melodia alaiak entzutea. Aurten 23 aldiz atera gara Andoaingo kaleak alaitzera, zein kontzertuak eskaintzera edo eta Basteron jaialdi handi bat antolatu eta oinarri musikala ematera. 15. urteurrena izan dugu aurtengoa eta 7 txaranga bildu genituen apirilean Andoainen, Gipuzkoa osorik etorritakoak, eta noski hori bakarrik lortzen da errespetu

handia sortua baduzu musikariaren artean; beraiek txarangatxo partaideak izanik, ongi aski baitakite Andoaingo berezia dela, bai helburuetan, antolaketa edota partaide kopuruan.

Abenduko Aspanogiren aldeko kontzertuan 42 musikari bildu zituen gure txaranga –horien artean Donostiako kontserbatorioko irakasleak–, eta banda formatu aritu ziren gurekin, era jator eta umilean.

Urtea bukatzean dago eta proiektu berriak ditugu

datorren urterako, ilusioa mantentzen baitugu, kultur eragileak gara eta eroso sentitzen gara horretan.

Ez dut idatzi hau bukatu nahi La Salle ikastetxeari eskerrak eman gabe, entsaiorako lokalaren beharrebaren nabaritu gintuztenean, segituan azaldu ziren gure beharra asetzeko prest. Andoaingo herriak goxo, irribarretsu eta alai hartzen gaituen bitartean, Gora Kaletxiki txaranga kultura eta alaitasuna zabaltzen saiatuko da.

## POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus

## PROTAGONISTA

# "Etxebizitza guztietara iristen gara, gaua majikoa baita"

MARI DOMINGI ETA OLENTZERO EGBERRIETAKO PROTAGONISTA NAGUSIAK

## Erredakzioa URNIETA

Lanean, nola ez, gisa horretan harrapatu ditugu Olenzero eta Mari Domingi.

**Abenduaren 22an, gau partean, mendizaleak Adarra aldean ibiliko dira. Ez ote dira zuen bila arituko?**

Ez gara oso urruti ibiliko. Bagoaz, pixkanaka. Urnietara iristeko irrika biziz gaude! **Zer dela eta abenduaren 23an, Urnietara?**

Eta zergatik ez! Tradizioak ondo daude, horri esker etortzen gara urtero-urtero. Baina aldaketak ez digu kalterik egingo. Ez guri, ezta Urnietako txikienei ere.

**Abenduaren 23an, beraz, Urnietara beste herrietako haurrak hurbildu al daitezke?**



Mari Domingi eta Olenzero Urnietan barrena iritsiko dira, abenduaren 23an. Eta abenduaren 24an gainerako herrietara abiatuko dira. AIURRI

Noski! Aurten, gainera, ohiko kalejiraz gain, Idiazabal kalearen ondoko Guria eta Zaldundegiko plazatan dantzan aritzeko aukera izango da. Heldu eta txiki, gazte, guraso, osaba-izeba, aitona-amona... guztiak dantzan jarri nahi ditugu. **Zuekin egoteko aukera izango al da?**

Nola ez ba? San Juan plaza ondoko ermitaren kanpoaldean eskutitza guri emateko eta gaztain eta magdalena goxoak dastatzeko aukera izango duzue.

**Haur eta gaztetxo asko zuekin egoteko desiatzen daude...**

Baita gu ere. Egun eta gau magikoa izango da abenduaren 24koa. Opariak izango dira, ziur, baina guretzat oparirik onena haurren artean osasuna eta giro ona aurkitzea da. Hori ikusita pozarren itzuliko gara Adarra aldera. Euskaraz hitz egiten jarrai ezazue. Horixe baita opariz beteriko astoak zuengana hurbiltzeko erabiltzen duen GPSa.

## DEIALDIA



## Sahararen aldeko diru bilketa Andoainen

Abenduaren 22an, larunbatekin, Hurria Saharak diru bilketa antolatu du Saharak errefuxiatuek bizi duten egoera humanitario eta elikagai krisi latzari aurre egiteko: "10:00etatik aurrera Eskola kaleko Kutxaren egoitza parean mahaia jarriko dugu. Diru bilketa egiteaz gain, 2019ko egutegiak ere salduko ditugu.

Diru bilketarekin Sahararen aldeko *Piztu Itxaropena* kanpainari hasiera emango diogu. Jasotako elikagaiak eta dirua otsaila aldera irtengo da Tindufeko kanpalekuek. Ohar honen bitartez, berriro eskertu nahi dugu andoaindarren Saharako herriarekiko eskuzabaltasuna".



**Aiurri eskuragarri:**  
Etxez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Ainhoa Gil, Amaia Senperena.  
**Maketatzailea:** Maddi Trubuelo.  
**Kudeaketa, harpidetzak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzaleak:** Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi, Rocío Arias (Urniet).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale ohikoan. Zenbaki honetan, aldiz, 6.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ ALIATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

ZIURTAGIRIA: BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

**Paperezkoa:**  
**2019ko urtarrilaren 11tik aurrera.**  
**Bitartean webgunean:**  
**Agenda, albisteak, argazkiak, bideoak...**

**aiurri.eus**

## AZKEN ORDUKOA



## Kale-garbiketa zerbitzu osoa publikoa izango da

Andoingo Udalak, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, kale-garbiketa zerbitzu osoa publikoa bilakatuko duela iragarri du. Publikazioarekin hiru helburu betetzen direla adierazi du Gobernu taldeak, ohar bidez:

- "Zerbitzu hobea: Langileen ibilbideak berraztertu dira, eta igande eta jai egunetako arbiketa orduak ere handitu egingo dira".
- "Bi lanpostu berri sortuko dira".
- "Udalak urtero 68.000 euro aurreztuko ditu".

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# EGUBERRIAK ANDOAINEN

## LARUNBATA 22

**12:00** Soinuak musika eskolako ikasleen kontzertua Basteron.

**18:00** Olentzero, gaztaina erreak, txokolatada eta opariak Etxeberrieta plazan.

**18:00-21:00** Bertso poteoa eta trikiritxa, Lanbroatik abiatuta.

## IGANDEA 23

**12:00** Gipuzkoako haur abesbatzen Gabonetako kontzertua Basteron.

## ASTELEHENA 24

**17:30** Olentzero eta Mari Domingiren irteera Basteroko plazatik.

**18:30** Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Espigoira.

## ASTEAZKENA 26

**09:30** Gazte Astea: Pala eta eskupilota Arraten.

**17:00** Gazte Astea: Antzerki tailerra Gazte Lokalean.

**20:00** Ikusizirkus Basteron: El punto de la i.

## OSTEGUNA 27

**10:00** Gazte Astea: Gazte erronka Arraten.

**16:30** Gazte Astea: Jolasak Gazte Lokalean.

**20:00** Ikusizirkus Basteron: InTarsi.

## OSTIRALA 28

**11:00** Gazte Astea: Krosa Urigainen.

**17:00** Gazte Astea: Zumba Gazte Lokalean.

**20:00** Ikusizirkus Basteron: Entredos.

## LARUNBATA 29

**09:20** Eskubaloi jardunaldia Allurralden eta Arraten.

**11:30-13:30** Gaztain erreak Juanita Alkain plazatxoan.

**17:00** Gazte Astea: Itxiera ekitaldia.

**19:45** Eskubaloi jardunaldiaren amaiera Allurralden.

**20:00** Ikusizirkus Basteron: Mur.

## IGANDEA 30

**11:00-20:00** Haur Parkea Allurralden.

**20:00** Ikusizirkus Basteron: Sinergia.

## Gutunak Etxeberrietara

Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00tan hasita, Olentzero eta Mari Domingiri gutunak helarazteko aukera izango da Etxeberrieta plazan. Ekitaldi berean, Jai batzordearen eskutik gaztain erreak eta txokolate jatea iragarri dituzte. Abenduaren 31n, berriz, kalez kale ibiliko dira pajeak, urtarrilaren 6rako Errege Magoei gutunak helarazteko.



AIURRI

## ASTELEHENA 31

**11:00-14:00** Gabonetako Haur Parkea Allurralde kiroldogian.

**11:00-13:00** Kale animazioa Olagain txistulari elkartearekin.

**11:30** San Silvestre lasterketa Zumea plazan.

**12:00-13:15** Pajeen irteera eskutitzak jasotzeko.

**00:45-04:00** Urtezahar gaueko DJ festa Nafarroa plazan.

## ASTEARTEA 1

**09:00** Adarrara igoera, eta salda.

## LARUNBATA 5

**17:00** Erregeak, pajeak eta laguntzaileak Zahar Egoitzan.

**18:25** Antortx edo garbi-zuzien piztuera. 18:30ean Zumea plazatik Kabalgataren irteera.

**19:30** Goikoplazan Errege Magoen adierazpena.

LI  
Arropa eta osagarriak

Kale Nagusia 6  
Andoain  
Tel. 943591224

Gabon  
zoriontsuak  
eta  
Urte berri  
on!!!

Abenduan, larunbat arratsaldetan zabalik

# Keinu

(txapelak, mantalok...)

**Kale Nagusia, 12. ANDOAIN**  
637 283 224  
keinuandoain@gmail.com

[www.txapelasybordados.com](http://www.txapelasybordados.com)  
[www.txapelabordatuak.eus](http://www.txapelabordatuak.eus)

- Baserritar jantzieta aukera zabala
- Dantzarako arropa
- Era guztietako bordatuak

**Academia G.F.**  
wishes all of you  
MERRY CHRISTMAS  
and a HAPPY 2019

943 59 15 08

# EGUBERRIAK URNIETAN

## OSTEGUNA 20

**17:00** Argazki erakusketa eta merienda Gaztelekuan.

**18:00** Jaiotza eta argien piztuera Etxeberri plazan.

**20:00** Abenduaren 24an kantuan irteteko entsegua, Lekaion.

## OSTIRALA 21

**11:30** Neguko azoka Idiazabal kalean.

**17:00** Taloa eta txistorra Gaztelekuan.

**17:00** Ospakizuna Zubitxo plazan.

## LARUNBATA 22

**18:30** Adarrara irteera, San Juan plazatik. 19:00tan Besabin.

**19:00** Desentxufatuak, Saroben.

## IGANDEA 23

**17:30** Olentzero eta Mari Domingi.

## ASTELEHENA 24

**17:00** Kantu taldea, San Juan plazatik.

## ASTEAZKENA 26

**09:00** Haur tailerrak Lekaion.

**11:30** Haur tailerrak Lekaion.

**13:30** Patata tortilla txapelketa Gaztelekuan.

## OSTEGUNA 27

**09:00** Haur tailerrak Lekaion.

**11:30** Haur tailerrak Lekaion.

**16:00** Zinemara Gaztelekuarekin.

## OSTIRALA 28

**11:00** Haur tailerrak Lekaion.

**14:00** Scape room DBH 3 eta 4 mailakoentzat, Gaztelekuan.

**19:00** Itsaso abesbatza elizan.

## LARUNBATA 29

**17:30** Txoborro magoa Saroben.

## IGANDEA 30


**17:00** Zinema familian Saroben.

## ASTELEHENA 31

**16:30** San Silvestre urte zaharreko lasterketa, San Juan plazan. Azken urteetan egin bezala, jai giroan eta mozorrotuta egiten den lasterketa da.

## Adarrara gauetz, mendi irteera

Zanpatuz mendi elkarteak irteera antolatu du Adarra mendira, abenduaren 22rako. Besabin hasi, Adarrara igo eta Besabira itzuliko dira. Frontala eta linterna beharrezkoak dira, baita neguko arropa eramatea ere. Besabira ahalik eta ibilgailu gutxien igotzeko, 18:30ean San Juan plazan ipini dute hitzordua. Bigarren hitzordua, berriz, Besabitik bertatik.



@METEOANDAIN

## ASTEARTEA 1

**11:00** Taldeko argazkia Adarran, Sarek deituta.

## ASTEAZKENA 2

**10:00** Adarrara, Gaztelekuarekin.

## OSTEGUNA 3

**10:00** Txuri Urdinera, Gaztelekuarekin.

**16:30** Kulki herri kirolak kiroldegian.

## OSTIRALA 4

**10:00** Irungo Cars gunera irteera, Gaztelekuarekin.

**11:00-13:00** Puzgarriak Kiroldegian.

**16:30-19:00** Puzgarriak Kiroldegian.

## LARUNBATA 5

**18:00** Kabalgata Loberatik.

**19:00** Erregeen opari banaketa San Juan plazan.





MANUEL CASELLAS URTARRILA

**Elurrak ezkututzen duena:** "Ez naiz hemengoa, andaluziarra baizik. Eta ulertzekoa denez, gutxitan ikusi dut elurtea. Normalki ez daukazunak eragiten dizulako arreta. Zumea plazan bizi naiz, eta balkoitik aterata dago argazkia".



JOSE ANGEL AMUCHASTEGUI OTSAILA

**El tunel del tiempo:** "Ideia batzuk buruan bueltaka zebilkidan, bi batik bat: zaharra eta modernoaren arteko kontrastea, eta, denboraren joana. Eta bi ideia horiek, askorako ematen duen elizaren eraikineko harriekin lotu nituen".



AITOR ALKAIN MARTXOA

**Ubaran erreka:** "Herrian ezezagun samarra den Ubarango zubiari bota nion begia. Beti erakarri izan nau. Alde batetik harrizko egitura dauka, eta bestetik, berritua dago. Txanponaren bi aurpegi, erabat desberdinak".



HILARIO RODEIRO (BELEN VEIRAS) UZTAILA

**Arcos:** "Plazaalako bidegorritik oinez gabiltzanetan, zubiak beti piztu izan digu arreta berezia. Behin baino gehiagotan joan behar izan genuen argazkia ateratzera. Kamioirik gabeko egunean, argi zoragarriko eguna egokitu zitzaigun".



XABIER ALKORTA ABUZTUA

**Piztia:** "Zenbaitentzat zatarra da, Lasarte-Oriatik Andoainera, N1 errepide bazterrean dagoen Belkoingo harrobi zaharreko eraikina. Niretzat badu xarma, eta horrexegatik aukeratu nuen".



JUANAN LAZKANO IRAILA

**Bizikletaren jokua:** "Iraganean tradizioa izan zuen oilasko jokoaren ordeztu, bizikleta jarri nuen. Oilasko jokoaren ordeztu, bizikleta jokoa. Kamera estenoipeikarekin lortu nuen argazkia. Errebelatu ostean, orduan ikusten duzu emaitza".

# Egutegiko argazkilaria

Andoaingo Udal egutegia banatzen hasi orduko, interes bizi pizten da herrikideen artean. Udalak herri mailako lehiaketa bidez bildu ditu argazkiak, azken bi urteotan. Hauexek egutegiko argazkilarien lekukotzak

## Xabier Lasa ANDOAIN

Sari banaketa ekitaldia egin zuten Basteron, abenduaren hasieran. Argazkia ateratzeko ekimena oso bestelakoa izan zen, argazkilaria batetik bestera.

## Manuel Casellas, urtarrila

"Ez naiz hemengoa, andaluziarra baizik. Eta ulertzekoa denez, nire begiek gutxitan ikusi dute elurtea. Normalki ez daukazunak eragiten dizulako arreta. Zumea

plazan bizi naiz, eta balkoitik aterata dago argazkia. Emaztea da bertan ageri den *modelo*. Ez nuen nahi leku jakin batekin erraz identifikatuko zen paisajea izatea, eta uste dut lortu nuela".

## Jose Angel Amuchastegui, otsaila

"San Martin eliza Andoaingo elementu esanguratsuenetakoa izan zitekeela pentsatu nuen, eta horri heldu nion. Ideia batzuk buruan bueltaka zebilkidan, bi batik bat: zaharra eta modernoaren arteko kontrastea, eta, denboraren joana. Eta bi ideia horiek, askorako ematen duen elizaren eraikineko harriekin lotu nituen. Denboraren tunela kontzeptuarekin geratu nintzen azkenean. Argazki perfektua gogoan, elementuek bat egin zuten".

## Aitor Alkain, martxoa


"Herrian ezezagun samarra den Ubarango zubiari bota nion begia. Beti erakarri izan nau. Alde batetik harrizko egitura dauka, eta bestetik, berritua dago. Txanponaren bi aurpegi, erabat desberdinak.

Zubia kokatzen den Ubaran bailara bisitatzera gonbidatu nuke edonor. Merezi du, argazki kamera gainean eraman, ala ez. Argazkiak zuk nahi duzuna erakutsi dezakeela uste dut. Une jakin batean biltzen diren hainbat elementu emaitzean eragina dute: eguneko argi naturala, zeure egoera animikoa, lekuak pizten dizkizun oroitzapenak..."

## Natalia Artetxe, apirila

"Andoaingo paisaia bereizgarrietakoa da Unanibiako zubia. Tipikoa izan daiteke argazkia besterik gabe, baina paperezko ontziak, bere txikitazunean, protagonismoa hartzen du. Akaso horrek ukitu berezia ematen dio. Harri artean, nola edo hala, jarri nuen kamera. Txuri-beltzaren zale amorratua naiz, eta argazkia horrela atera nuen".





**NATALIA ARTEXE** APIRILA

**Zubia:** "Tipikoa izan daiteke argazkia besterik gabe, baina paperezko ontziak, bere txikitasunean, protagonismoa hartzen du. Akaso horrek ukitu berezia ematen dio. Harri artean, nola edo hala, jarri nuen kamera".



**XABIER HUIZI** MAIATZA

**Andoain:** "Maiatza Andoaingo jai guztien hasiera markatzen duen hilabetea da. Musikiariak ageri dira, musika delako festaren elementua. Erretratuak egiterako orduan pertsonak agertzea dut gogoko, izan daitezela protagonista, paisaiak baino gehiago".



**ITZIAR GUTIERREZ** EKAINA

**Aitona-amonen etxetik:** "Edari lata batekin egin nuen, solarigrafiaren teknikaz baliatuz. Magia moduko zerbait da, ez baitakizu zer aterako den. Denera sei hilabeteko prozesua izan zen: udan jarri eta neguan kendu".



**JULIAN GUERRERO** URRIA

**Ibaia:** "Lasarte-Oriatik natorren bakoitzean, begiak eskuin aldera joaten zaizkit, txoratuta geratzen naiz azaltzen zaigun paisaia bukuloikoarekin: ibaiaren ur emaria beherantz, basoa alde banatan, etxea urrunean...".



**ROBERTO TRUTXUELO** AZAROA

**Santakruz zubia:** "Kamera estenopeikarekin atera nuen, etxean egindako kaxa batekin, alegia. Teknika artesanal da: minutu eta bost minutu artean itxaroten duzu zuloa edo objetiboa irekita argia sar dadin, eta gero etxean errebelatu egiten da".



**JON AIZPURUA** ABENDUA

**Mara-mara:** "Aurtengo Errege eguneko da erretratua. Egundoko elurtea bota zuen. Irudiaren erdian dagoen pertsona emaztea da. Zeru zabalean, berriz, ilargia ageri dela ematen du, baina efektu optikoa baizik ez da. Farola bat da".

**Xabier Huitzi, maiatza**

"Maiatza Andoaingo jai guztien hasiera markatzen duen hilabetea da. Musika Bandako instrumentistak ageri dira, musika delako kalean festa jartzen duen elementua; gainera, musikariak Luis Fracaren *Andoain* martxa jotzen ari ziren instantean harapatu nituen. Erretratuak egiterako orduan pertsonak agertzea dut gogoko, eurak izan daitezela protagonista, paisaiak baino gehiago".

**Itziar Gutierrez, ekaina**

"Edari lata batekin egin nuen, solarigrafiaren teknikaz baliatuz. Magia moduko zerbait da, ez baitakizu zer aterako den. Gokoplazan laugarren pisuan bizi diren aitona-amonen balkoitik atera nuen, elizari begira baitago. Balkoiko hormara itsatsi nuen

lata, eta sei hilabeteko prozesua izan zen: udan jarri eta neguan kendu. Marra horietan euriaren edota eguzkiaren ibilbidearen arrastoak aurki daitezke..."

**Hilario Rodeiro, uztaila**

"Belen Veiras emaztea eta bion arteko kontua izan zen. Plazalako bidegorritik oinez gabiltzaretan, zubiak beti piztu izan digu arreta berezia. Behin baino gehiagotan joan behar izan genuen argazkia ateratzera. Kamioirik gabeko egunean, argi zoragarriko eguna egokitu zitzaigun".

**Xabier Alkorta, abuztua**

"Zenbaitentzat zatarra da, Lasarte-Oriatik Andoainera, N1 errepide bazterrean dagoen Belkoaingo harrobi zaharreko eraikina. Niretzat badu xarma, eta horregatik aukeratu nuen. Berriki

margotu dute, baina nik aurretik egin nion argazkia. Gau batean izan zen, flasha erabili gabe".

**Juanan Lazkano, iraila**

"Baztertuta geratzen da Sorabilla, eta Andoaingo auzo hori aldarrikatu nahi izan dut. Irailarekin identifikatzen dut batez ere Sorabilla, festak ospatzen direlako orduan. Iraganean tradizio izan zuen oilasko jokoaren ordez, bizikleta jarri nuen. Oilasko jokoaren ordez, bizikleta jokoa. Kamera estenopeikarekin lortu nuen argazkia. Errebelatu ostean, orduan ikusten duzu emaitza".

**Julian Guerrero, urria**

"Lasarte-Oriatik natorren bakoitzean, begiak eskuin aldera joaten zaizkit, txoratuta geratzen naiz azaltzen zaigun paisaia bukuloikoarekin: ibaiaren ur emaria

beherantz, basoa alde banatan, etxea urrunean... Behin, autoa bazter batean aparkatu eta halaxe atera nuen argazkia; oraindik ezkutatu ez zen egunsentiko argi polit horrekin osatu nuen erretratua. Uste dut lortu nuela erabateko armonia batzea".

**Roberto Trutxuelo, azaroa**

"Kamera estenopeikarekin atera nuen, etxean egindako kaxa batekin, alegia. Teknika artesanal da: minutu eta bost minutu artean itxaroten duzu zuloa edo objetiboa irekita argia sar dadin, eta gero etxean errebelatu egiten da. Zergatik Santakruz? Auzo horretan hazi naiz, eta inguruak sentimentalki lotzen nau. Gogoan dut, adibidez, bataioetan elizaren atarian zer nolako txanpon festa edukitzen genuen. Aita eta osabaren argazki erakusketa jarri

den urtean saritu izanak esanahi berezia dauka niretzat, etxetik jaso baitut argazkigintzarako zaletasuna".

**Jon Aizpurua, abendua**

"Aurtengo Errege eguneko da erretratua. Egundoko elurtea bota zuen. Herria den-dena paralizatuta geratu zen, eta emaztea eta biok Plazaolako bidegorrian barrena abiatu ginen. Kamera lurrean jarrita argazkiak ateratzea dut gogoko, gertutasuna islatzen delako. Eta horrelaxe egin nuen. Irudiaren erdian dagoen pertsona emaztea da. Zeru zabalean, berriz, ilargia ageri dela ematen du, baina efektu optikoa baizik ez da. Farola bat da, inguru guztiari argia ematen diona. Argi horrek horiztatu egiten zidan argazki guztia, eta zuribeltzera pasa nuen".

# EGUBERRIAK AIZTONDON

## ADUNA

### ASTELEHENA 24

**09:00** Eskolako haurrak kantari aterako dira. Ondoren hamaiketako eta Olentzerok eskolan utzitako opariak jasoko dituzte.

### OSTIRALA 28

**12:00** Peru eta otsoa. Familian gozatzeko antzerki saioa, Kultur Aretoan edo Elordi Lokalean.

## VILLABONA

### OSTEGUNA 20

**18:30** Jaiotzen erakusketa Gurean. Astean zehar, arratsaldez, 20:30ak arte zabalik. Larunbatetan, eguerdian, 11:30etik 14:00etara zabalik.

## OSTIRALA 21

**19:30, 22:00** Ha nacido una estrella filma, Gurean.

## LARUNBATA 22

**19:30, 22:00** Ha nacido una estrella filma, Gurean.

**19:45** Eresargi txiki eta Eresargi abesbatzak Jesusen Bihotza elizan.

## IGANDEA 23

**19:00** The Upper Room gospel taldearen kontzertua, Gurean.

## ASTELEHENA 24

**10:00** Herriko ikastetxeetako haurrak kalez kale kantari ibiliko dira.

**18:00** Olentzero eta Mari Domingi Otsabi auzora iritsiko dira, ondoren kalejira egiteko.

## ASTEARTEA 25

**19:30** Ha nacido una estrella filma, Gurean.

## OSTEGUNA 27

**19:30** Errusiako ballet konpainia profesionala, Gurean.

## OSTIRALA 28

**19:30, 22:00** Animales fantasticos filma, Gurean.

## LARUNBATA 29

**19:30, 22:00** Animales fantasticos filma, Gurean.

## Jostailu trukea Iriarte Etxean

Aiztondoko Denbora bankuak sustatuta, eskualdeko hurrei zuzendutako jostailu trukea Zizurkilgo Iriarte Etxean. Aurrez jostailuak, ipuinak edo bestelako gauzaren bat eman nahi duenak, Aiztondoko denbora bankuarekin harremanetan jarri behar du: 602 092 264. aiztondokodenborabankua@gmail.com.



AIURRI

## IGANDEA 30

**17:00** Ploey filma euskaraz, Gurean

**19:30** Animales fantasticos filma, Gurean.

## ASTELEHENA 31

**16:00** Zunbeltz elkartearen paretik abiatuko da Urtezaharretako lasterketa.

**18:00** Presoen aldeko manifestazioa.

## LARUNBATA 5

**19:00** Errege Kabalgata.

## ASTEASU

### LARUNBATA 22

**22:00** Harri Handien txapelketa.

## IGANDEA 23

**11:30** Herri Kros Solidarioa, haur eta helduentzat.

## Gabon zorientsuak!



AMASA-VILLABONA  
Villabonako Udala



## Ernaitza liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Ondo pasa Gabonetan!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - emaitza@yahoo.com

- Zurgintza orokorra
- Armairuak neurria
- Ateak
- Zokaloak
- Leihoak
- Eskailerak

**Joseba**  
AROSZTEGIA

Gabon zorientsuak!

687 683 427

josebaarotza@gmail.com

### ASTELEHENA 24

**12:00** Olentzero eta Mari Domingiri harrera, pilotalekuan.

### ASTEAZKENA 26

**17:00** Beldartxo Jatuna antzezlan, ikus-entzunezkoen aretoan.

### OSTEGUNA 27

**16:30** Jolas kooperatiboen tailerra, Kultur etxean. Hilaren 21a baino lehen eman behar da izena, Guraso Elkartearen asteasukogurasoelkartea@gmail.com e-postan. HHkoak heldu batek lagunduta joan behar du. Ondoren, merienda Guraso elkartearen eskutik.

**19:00** Handia filma, ikus-entzunezkoen aretoan.

### OSTIRALA 28

Arratsalde, Gazteleku zerbitzua zabalik.

### LARUNBATA 29

Arratsalde, Gazteleku zerbitzua zabalik izango da.

### ASTELEHENA, 31

**17:00** Herri kirolak: Gabonetako aizkolari, harrijasotzaile eta nesken ingude txapelketako finalak Udal Kiroldegian. Informazio gehiago, 14. orrialdean.

### ASTEAZKENA 2

**16:30** Marco Macaco filma, ikus-entzunezkoen aretoan. 4-10 urte bitartekoentzat aproposa.

**18:00** Merienda, Guraso elkarte kideen eskutik.

**18:30** T.S. Spiveten bidaia harrigarria filma, ikus-entzunezkoen aretoan. 7 urtetik gorako haurrentzat aproposa.

### OSTEGUNA 3

**19:00** Bailarako Udal ordezkariak El Salvadorreko Meanguerara egindako bidaiaren hitzaldia eta argazki emanaldia, ikus-entzunezkoen aretoan.

### OSTIRALA 4

**15:30** Haur eta helduen esku pilota eta pala txapelketako finalak.

### LARUNBATA 5

**19:00** Errege kabalgata.

### LARRAUL

### OSTIRALA 21

**17:30** Karaokea haurrentzat, liburutegian.

### ASTELEHENA 24

**09:15** Gabon eskea, plazatik abiatuta.

### ASTEAZKENA 26

**17:30** Haur-filma, liburutegian.

### ZIZURKIL

### OSTEGUNA 20

**17:30** Ipuin kontaketa Maite Frankorekin, Iriarte kultur etxean. 4 urtetik gorako umeentzat. Umeek gurasorik gabe sartu beharko dute.

### OSTIRALA 21

**17:30** Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketa eta Plazida Otaño booktrailer lehiaketako sari banaketa ekitaldiak.

**18:00** Txistorra jatea, Elizpen.

### LARUNBATA 22

**11:00-13:30** Aiztondoko Denbora bankuak sustatutako jostailu trukea, Zizurkilgo Iriarte Kultur etxean.

Aurrez jostailuak, ipuinak edo bestelako gauzaren bat eman nahi duenak, Aiztondoko denbora bankuarekin harremanetan jarri behar du: aiztondokodenborabankua@gmail.com  
602 092 264.

### ASTELEHENA 24

**09:30** Gabon kantu erronda. San Millan eskolakoak baserrietan, eta Pedro Maria Otaño eta Zubimusu ikastolako umeak Elbarrena auzoan.

**17:30** Urkamendi aldetik etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi, Loatzo Musika Eskolako musikariek lagunduta. Plazan Bukalai Dantza Taldekoek dantzatu eta Loatzo Musika Eskolakoek musika joko dute.

### ASTELEHENA 31

**16:30** Urte Zaharreko Lasterketa herriko kaleetan barrena.

943 593 777  
Andoain

**Zorionak eta urte berri on!**

Abenduaren 18tik  
urtarrilaren 5era arte.

**Prezio zehatza**  
**EROSI ANDOAINEN**  
Hau zurea izan daiteke!

**S2**  
**SALKIN**  
bertatik bertara

ANZURRI-ORDELLA

**ASMATU**

*Eguberri eta Urteberri on guztioi!*

Asteasuko Udala



Xabier Olaso, idazlea eta "Tximeletrak airera" saioaren gidaria da. ESKOLABARRI

## Tximeletra, poesiaz gozatzeko aukera haur eta gurasoentzat

Andoingo Udal liburutegiak euskarazko literatur saioa antolatu du, abenduaren 28rako

### Erredakzioa ANDOAIN

"Tximeletrak airera" haur poesiarekin gozatu nahi duten guraso eta pertsona guztiei zuzenduta dago. Ordu bete inguruko saioa izango da, euskaraz. Udal liburutegitik aurreratu dutenez, "Xabier Olasok ahora ekarriko

ditu bere poemarik kutunenak, bizia emango die, ahots doinuez, gorputz imintzioz... Deklamatzeko eta dramatizatzekeo poemak izango dira batzuk, jolasteko beste batzuk; abesteko eta dantza egiteko poemak ere izango dira tarteko".

## Magia Saroben, hilaren 29an

Magia eta umorea, ordu beteko ikuskizunean: "Ikuskizunean zehar, Txoborro magoak ikusle gosoa hipnotizatuko du, ikusle batek bere dirua galduko du eta munduko piztiarik arriskutsuenen itzalak agertuko dira. Ala ez. Baliteke hipnosia iruzur erraldoi bat izatea, inork ere dirurik ez galtzea eta itzalak eskuen koordinazio zehatza besterik ez izatea".



Txoborro magoa Urnietan izango da, Eguberrietan. TXOBORRO

# Ikuszirkus Andoain

Arriskua, umorea eta emozioa bizitzeko garaia izango da, datorren astean Basteron Ikuszirkus zikloan bidez eskainiko dena. Abenduaren 26tik 30era, saio guztiak iluntzeko 20:00tan hasiko dira

### Amaia Senperena ANDOAIN

Ikuszirkus zikloaren XII. edizioa iristear da, Andoingo Udalaren eta Bastero Kulturgunearen eskutik. Bakarrik, lagun artean edo familian gozatzeko moduko ikuskizunak dira.

### Abenduak 26

Malicia! Cia antzerki taldeak "El punto de la i" ikuskizuna eskainiko du, sare sozialetan argazkiak elkarbanatzeko dugun behar horretan oinarrituta. Gure bizitza pertsonalean izan dezakeen eraginaz jardungo dute.

### Abenduak 27

Kataluniako EIA zirkua "In-Tarsi" ikuskizunak 2017an MAX sarietako bat irabazi zuen, eta urte bat lehenago ikuskizun berritzaile onenari saria eman zieten. Ikuskizun indartsua, poetikoa, dibertigarria eta gizatiarra da. Hauxe da aurreratu daitekeena: Lau akrobata bata bestearengandik ikasten, bultzaka, batak bestea jaurtitzen... eguneroko bizitza zirkora eramanda.

### Abenduak 28

Aragoitik Cia. Capicua "Entredos" antzezlana eskainiko du. Irudimenaren eta errealitatearen arteko jokoak irudikatuko dute Basteron. Sinopsiak horrela dio: "Protagonistak, bat-batean eskuan katiluaren ordez zapata aurkituko du.



"InTarsi", hilaren 27an. Max sarietako irabazleetakoa izan zen 2017an. BENHOPPER



"Entredos", hilaren 28an. MARTAGC

Zapata eskuan duela, erantzun bat bilatzen hasi eta emakume bat bilatuko du. Ametsetan arida edo esna dago?". Keinu bidezko antzerkia, zirkua, dantza eta objektuen manipulazioa.

### Abenduak 29

Hilaren 29an, hondakinen arteik mundu berri bat eraiki nahi duten hamabi pertsona hurbilduko dira Basterora. (Cia)3 antzerki taldearen "Mur" antzezlanean zuzeneko musika eta umorea uztartzen dituzte: "Bakarrik bagoaz, azkarrago iritsiko gara; elkarrekin bagoaz, urrunago iritsiko gara".

### Abenduak 30

Ikuszirkus jaialdiari amaiera emateko, Madrildik etorritako Nueveuno antzerki taldeak Sinergia 3.0 antzezlana eskainiko du. Musika, eszenografia eta argiteria, emozioaren eta ikuskizunaren mesedera egokitzen dute. Malabareak, objektuen manipulazioa, ariketa bertikalak eta dantza uztartuko dituzte emanaldi osoan zehar.

**Eguberri on!**  
**TRANSPORTES**  
**akunza**

**Eguneroko zerbitzua Bizkaiara,**  
**Iruñeara eta Gasteizera**

609 434 910 - 609 401 884. Tel.: 943 693 212 - Faxa: 943 694 924  
www.transporteslakunza.com - info@transporteslakunza.com  
A Industriegunea - 16. pabilloia, 20159 ASTEASU  
52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA



**Ingeles eskola**

Eguberri, eta Urte berri on!  
Merry Christmas and a Happy New Year

**Cambridgeko azterketen**  
**prestakuntzarako zentro**  
**homologatua**

Ondarreta kalea, 7 behea. ANDOAIN  
943 300 839. www.andoainenglish.com



# Garai batean bezala

Zizurkilgo Elbarrena auzoan, Arantzazuko Amaren elizan, jaiotza ikusgarria ipini du Luis Ugarte herritarrek. Aspaldiko haiek bezala, mugimenduz beteriko jaiotza eskaintzen die bisitariei. Urtez urte, gainera, elementu berriekin osatzen ari da

## Amaia Senperena ZIZURKIL

Jesus jaio zeneko Belengo estalpea eta herrirka irudikatu ditu, mugimendu artikulatuaz baliatuta. Egurrezko hainbat pertsonaia ikus daitezke, beste hainbeste ofiziotan lanean: Segan, arropa garbitzen, meta egiten, behia jezten... Inguruko herrietatik bisitaldian joateko plan polita dago Elbarrena auzoan. Luis Ugarte da jaiotzaren sortzailea, zaintzailea eta erakuslea. Nondik dator kio afizioa? Erretiroa hartuta dago, aurrezki kutxan lanean aritu eta gero. Duela 25 urte, lantokiko erakusleihan lekua zutela ikusirik, garai bateko ofizioak erakusten zituzten figurak sortzeari ekin zion. Eta horrela, urtez urte, jaiotza dotorea osatzera iritsi da. Jaiotza horretan erraz identifikatu daitezke Belengo estalpeko protagonistak. Baina horiek bezainbesteko garrantzia dute alboko elementuek. Kuttunik ba ote duen galdetuta, hauxe Ugarteren erantzuna: "Nirigehien gustatzen zaidana errota da. Garai bateko errotaren detaile guztiak ikus daitezke bertan. Meta egiten ari dena ere oso polita da. Lehen, emakumeak laguntzen zuen behetik belarra botatz. Eta gizonezkoak goian egiten zuen meta. Hori gaur egun ez dugu ikusten".

Jaiotza, oraindik gogoan dauden ohituren erakusleho bihurtu da.



Luis Ugarte Elbarrena auzoko elizan ipini duen erakusketaren aurrean. AIURRI

## Urtarrilaren 6ra bitarte zabalik

Errege egunera bitarte egongo da zabalik. Meza orduen buelta horretan, aurretik eta ondoren zabalik izango da. Gainerakoan, bereziki kanpotik doazeneztat aholkua: Joan aurretik telefonoz deitu beharra dago. Luisekin harremanetan jarriz gero noiznahi ikus daiteke mugimendudun jaiotza. Interesa duen edonori erakusteko prest dago. Horretarako, berarekin harremanetan jartzea nahikoa izango da 943 69 11 64 telefono zenbakira deituta.

## Benetako baratzea eta sagarrondoak

Jaiotza ikusgarria da, hainbeste, bertan ikus daitezkeen baratzea eta sagarrondoak benetakoak direla! Jaiotza, beraz, biziduna da: "Baratzea eta sagarrondoak benetazkoak dira, bai. Jende

askok begiratzen du jai egun batetik bestera baratzeak zenbat hazi diren. Iaz tortillan egin da jan genituen. Sagarrondoak ere benetakoak dira. Añorgan bada sagar ekoizpena bideratutako baserri bat eta sagarrak hobeto polinizatzeko, sagar txiki lore asko ematen dituen sagarrondoak dituzte. Bertatik ekartzen dituzte".

Esan bezala, Luis jendeare bere jaiotza erakusteko prest dago: "Garai batekoak zirenak eta gaur ikusten ez diren ofizio zaharrak ikus daitezke, eta hori da jaiotzaren bidez erakutsi nahi dudana. Baserri giroa gustuko duen orori edota ezagutu nahi duen orori luzatuko nioke hona hurbiltzeko gonbitea. Ez baita jaiotza ikustea soilik, jaiotzarekin batera, Euskal Herria ikusten baita".



Adin guztiei zuzenduriko ikuskizuna da. ESSTA

## Errusiako Uraletatik datorren ballet garaikidea, Villabonan

Abenduaren 27an, iluntzeko 19:30ean hasita, "Elfoa eta aterki magikoa" ikuskizuna eskainiko dute Gurean

## Erredakzioa AMASA-VILLABONA

Ekaterimburgo ballet konpainia profesionalak geldialdia egingo du Amasa-Villabonan, Ole - Lukoye elfoaren historia kontatzen. Elfoak aterkia zabaltzen duenero abentura berria abiatzen da. Konpainiak sinopsian dioe-

naren arabera, "bisitatuko ditugun herrietan, adi aiton-amonak, gurasoak eta haurrak! Elfoa hurbiltzen ari da, eta historia berria kontatzeko prest dago".

Maria Gusarencoren zuzendaritzapean, konpainia 25 urteko ibilbidea osatzen ari da.



andoainDARRA  
euskaraz

[www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus)



OLAEDERRA KIROLDEGIA Urte hasierako eskaintza

- 2018ko abenduaren 27tik 2019ko urtarrilaren 31ra, bazkide zaharrek, matrikula ordaindu gabe, bazkidetza egiteko aukera izango dute. Baldintza: 6 hilabeteko bazkidetza mantendu beharko da (ekainaren amaiera arte).
- Edozein bazkidek, urtarrilean, bazkide berri bat ekartzen badu, %20ko beherapena izango du 5 hilabetetako kuotan eta bazkide berriak urtarrileko kuota dohainik izango du. Baldintzak: Inoiz bazkide izan ez den 22 urtetik gorakoa eta gutxienez 6 hilabetetako bazkidetza mantendu beharko da (ekainaren amaiera arte).
- Iharduera batean izena emanda dagoen bazkide batek, beste bazkide bat ekartzen badu edozein iharduerara eta azken hau, ez bada aurreko 2 hiru hilabetetan izena emanda egon, bi bazkideek %20ko deskontua izango dute. (3 hilabeteko ihardueretako bakarrik).

Argibide  
gehiago  
harreran edo  
943 69 43 22  
telefonora  
deituz

Kirolzer

ALBIZU



KIROLAK

Jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu

Kale Nagusia, 2 - 943 693 131  
Amasa-Villabona

## San Silbestrea Andoainen, Villabonan eta Urnietan

**LASTERKETAK** Jai giroko eta lagunarteko hiru lasterketa ezberdin, datorren abenduaren 31n

### Erredakzioa ESKUALDEA

Kirola egin nahi duenak aukera zabalba dauka eskualdean, eta ordutegi ezberdinetan. Hauexek urteari amaiera emateko hiru hitzorduen xehetasunak:

### Villabona-Zizurkil

**16:00. Dohainik**  
**Zumbeltz elkartearen paretik**

Villabonako herrigunea eta Zizurkigo Elbarrena zeharkatzen dituen Urte zaharreko lasterketa inguruotako zaharrena da. Zumbeltz eta Urkamendi elkarteek antolatuta, eta bi herrietako udalen babesarekin, aurtengoa 35. edizioa izango da. Antolatzaileek emandako datuen arabera, "iaz 470 partaide izan ziren dena. Adi, trafikari. Lasterketak iraun bitartean, orubete inguru, Pasusenea guztiz itxita egongo da auto, kamioi eta autobusentzat".

### Andoain

**11:30. 6 / 8 euro**  
**Zumea plazatik**

Lasterka Itzuli herriko ekimenaren eskutik, aurtengoa laugarren edizioa antolatuko dute. Berria delako edo, parte-hartze handia izaten da. Eta bereziki deigarriak izaten dira bakarka edota taldeka aritzen diren moztortutako korrikalariak. Antolatzaileek alde aurretik izena emateko gomendioa luzatu dute, aurreko urteetako azken orduko ilarak saihesteko.

### Urnietan

**16:30.**  
**San Juan plazatik**

Poxta Zahar gazte elkarteak antolatuta, egitekoa da lasterketa. Ibilbidea gorabeheratsua da, pittin bat gogorragoa, inguruko beste bi lasterketekin alderatuta.

## Herri kirol erakustaldia

**HERRI KIROLAK** Zizurkilen egin zen Gipuzkoako Harri Handien txapelketari jarraipena emanez, abenduaren 22an Asteasuko kiroldegian Euskadiko txapelketa ospatuko da

### Amaia Senperena ZIZURKIL

Txapelketa lau txanda ezberdinetan banatuko da, gaueko 22:00tan hasita. Txanda bakoitzean harri jasotzaile bakoitzak hiru minutu izango ditu, tokatzen den harriari ahal bezainbeste altxaldi emateko. Lehenengo txandan 200 Kg-ko harri lauki zuzena altxa beharko dute. Bigarren tandan, berriz, 175 Kg-ko zilindrikoa. Hirugarrenean, 150 Kg-ko kubikoa eta azken txandan 125kg-ko harri borobila. Lau altxaldiak batuta gehien altxatzea lortzen duena izango da txapel-duna. Parte-hartzeari dagokienez, Aimar Irigoien Gipuzkoako Harri Handien txapel-dunak kale egingo du, lesioa medio. Hauexek, parte hartzaileak: Goenatxo III (Jon Unanue), Iban Ugartemendia, Kortaberri (Imanol Illarremendi), Jokin Eizmendi, Aimar Galarraga eta Julen Diaz.



Sarasola antolatzaileetako da. AIURRI

### Herri kirol gehiago Asteasun

Herri Kirolek berriro ere garrantzia hartuko dute Asteasun. Abenduaren 31n, 17:00tan hasita, hiru final jokatu dira: harri jasotzaileena, aizkolariena eta nesken mailako ingudeena. Hauexek hiru kirol jardueretako finalistak: Aizkoran, hamasei kanaerdikoarekin arituko dira; Mikel Larrañaga azpeitiarra, Xabier Orbegozo (Arria V.a) erreildarra eta Iñaki Azurmen-di beasaindarra. 100 Kg-ko zilindro zaharra, kubikoa eta bola harria jasotzen; Inar Urruzuno ondarrutarra, Xabier Peñagari-kano aizarnazabaldarra eta Imanol Albizu (Goikoetxe) elgoibartarra. Ingudearekin iritsi diren finalistak, minutu eta erdian hamar kiloko ingudearekin, Kar-mele Gisasola mallabiarra, Maika Ariztegi iturendarra eta Virginia Finol iruñarra.

Euskal Telebistak zuzenean eskainiko du, eta Joxe Angel Sarasola antolatzaileak aurreratu duenez, "jakin badakit EITBk festa moduan antolatuko duela finala".

## Europako EHF Kopako taldeek Urnietan ostatu hartuko dute

**ESKUBALOIA** Asteartean HK10 hotelean egin zuten prentsaurrekoan aurkarrien berri eman zuten

### Andoni Urbistondo URNIETA

Super Amara Bera Bera taldeko Tati Garmendia arduradunak prentsaurrekoa eman zuen asteartean HK10 hotelean, Donostiako taldeak EHF Kopan jokatuko duen ligatzoko hiru aur-

kariak ostatu hotel horretan hartuko dutela jakinarazteko. Errumaniako SCM Craiovak (EHF Kopako jarduneko txapel-duna) urtarrilaren 12an jokatuko du Irungo Artalekun, eta bezpera HK10 hotelean egingo

du. Urtarrilaren 26an Bera Bera-Nykobing neurketa jokatuko da (Danimarka), eta astebete geroago, otsailaren 3an, donostiarrrek HC Podravka Kroaziako taldea hartuko dute.

Tati Garmendiarekin batera, luxuzko ordezkariak hurbildu ziren prentsaurrekora: Bidasoa taldeko lehendakari Gurutz Aginagalde, EITBko Joseba Urkiola kirol kazetaria eta Jose Manuel Ruiz y Francisco Barros Euskadiko eta Gipuzkoako federazioetako lehendakariak.



Nazioarteko eskubaloi partiden iragarpena egin zuten Urnietan. AIURRI

# ORMENDI KIROLAK

Kale Berria, 2. ANDOAIN  
**943 591 806**  
ormendikirolak@euskalnet.net

**ORMENDI  
EGUBERRI ON**

**KIROLAK**

**Larunbatetan, abenduaren 22 eta 29an,  
eta urtarrilaren 5ean arratsaldez irekita**

## ZORION AGURRAK



ANDOAIN  
**Ane**  
Abenduaren 14an  
9 urte bete  
zenituen.  
Zeinen neska polita!  
Zorionak maitia.  
Muxu handi bat.




ANDOAIN  
**Aroa**  
Gure etxeko txikia  
kozkortzen ari zaigu.  
Jada 8 urte.  
Zorionak eta segi beti  
bezain bizi eta alai.  
Etxekoak.



ANDOAIN  
**Maddi**  
Abenduaren 22an  
9 urte.  
Zorionak artista!  
Egun mundiala izan  
dezazula! Muua!  
Etxekoak



ANDOAIN  
**Xune**  
San Estebango,  
Mendukilloko eta  
Katxiporretako  
Olentzero: Hilaren 25a  
eta 28a iristeko gogo  
biziz nago!



ANDOAIN  
**Maialen**  
Urtarrilaren 4an 24  
urte beteko dituzu.  
Zorionak eta jarraitu  
orain arte bezala zure  
ametsak betetzen.  
Muxuak, etxekoak.



ANDOAIN  
**Hodei**  
Zeinen handia  
egiten ari zaren, maitea.  
Pozik ospatuko dugu  
zure eguna.  
Muxu  
asko izango dituzu.



ANDOAIN  
**Anei**  
Abenduaren 22an  
6 urte beteko ditu gure  
txikiak!! Zorionak  
etxekoan partez,  
eta segi beti bezain  
jator!!



ANDOAIN  
**Nerea**  
Urte amaieran dator  
hain gogoko duzun  
eguna. Ez galdu inoiz  
irribarre politt hori. 20  
muxu erraldoi.  
Maite zaitugu.



ANDOAIN  
**Euri**  
Zorionak  
Euri!!  
ondo pasa  
eguna txapeldun!!

## Euskara ardatz duen antzezlanaren Urnietan, abenduaren 22an

Berriki "Ez Dok Hiru" antzeztu eta gero, "Desentxufatuak" eskainiko dute Saroben, iluntzeko 19:00tan hasita

### Erredakzioa URNIETA

Mikel Martinez eta Patxo Telleria bi euskara ikasleren paperean murgilduko dira, munduko euskaldunberririk zaharrenei bizi-tza emanez. Antzezlanaren aurkezpenean diotenez, "berrogei urte daramate euskaltegian eta publikoaren aurrera agertzen dira euren frustrazio, desio eta kekek adierazteko. Maitasun istoriorik ederrenetan bezala, euskara maite dute, eta gorroto. Gorroto dutelako maite dute; maite dutelako, gorroto. "Desentxufatuak" katarsi ariketa

bat da. Euskara ikasleentzat bada, baita euskara ikasle ez direnentzat ere".

Urnietako Saroben eskainiko dutena "Euskera Sencilloaren Manifestoa" eta "Larruaizetara" antzezlanen pasarte onenekin osatua dago. Euren hitzetan, "Artifizio handirik gabe agertu nahi dugu publiko aurrean, aurreko ikuskizunaren pasarterik arrakastatsuenetaz baliatuz, kalitatea konzentratua eskaintzeko". Tartean teatro taldeko kideak orain artea arrakasta handiarekin aurkezten aritu



Martinez antzezlanaren promozio irudian. TARTEAN

dira Ez Dok Hiru antzezlanaren. Urrutira joan gabe, duela egun gutxi Urnietan bertan.

Urnietatik kanpo hurbildu nahi duenarentzat, sarrerak salgai daude on line bibe.me gunean.



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

## Liburuen alde

Durangoko Azoka tsunamiari aurrea hartu diot Andoaingo Ernaitza liburudendan hainbat liburu erosiz. Gomendio modura, hor doaz batzuk. Eleberririk ez duzu topatuko, irakurle. Tarte gutxi eta eskasa dut, baina ez diot irakurtzeari utzi nahi.

Ane Labaka bertsolariaren 'Ezpainetakoa' (Erein) ezusteko atsegin horietakoa izan da. Malen Amenabarrek in batera lan iradokitzailea osatu du. Amodioaz, sexuaz, harremanez... bertsolaria izanik, hitza jolas ari zaigu lasartearra. Artelana da.

Ezusteko handiena Xabier Gantzarainen 'Zuloa' (Elkar) saiakerarekin hartu dut. Zeinen gutxi dakidan euskal arte garaikideaz, eta zeinen interesgarri diren horietako hainbat eta hainbat. Gantzarainek, liburua zehar, belaunaldi bati loturiko gatazka pertsonalak eta kolektiboak gordintasunez eta maisutasunez lantzen ditu. Artearen bitartez euskal auziari eskaintzen dion begiradak harrapatuta nauka.

Komikiei dagokionez, 'Haur Besoetakoa' (Ikastolen elkarte) ipuinarekin irri eta algara batean izan naiz. Alex Sanvi eta Unai Iturriagaren komikia une atsegin igarotzeko gutizia da.

Zinemari erabat lotuta dago "Oreina, bitakora kaiera" (Farmazia beltza) liburua. Koldo Almandozek aurtengo Zinemaldian euskal ekoizpen onenari Irizar saria lortu zuen. Kontakizun pertsonala da, ilustrazio eta argazki ederrez hornituta. Edukiaz eta estetikaz gomendagarria da oso.

Tarteka, eskuartean izaten dut Iban Zalduaren "Sekula kontatu behar ez nizekizun gauzak" (Elkar) liburua. Dosi txikietan, beharrezko dut deseroso jartzen nauten ipuinak irakurtzea.

## Danobatgroup sariak

Andoaingo Latz eta Danobatgroup enpresa taldeak, herritarrengana hurbildu eta euskararekiko duen konpromisoa ezagutzera eman nahian, internet bidezko lehiaketa antolatu zuten. Aurtengo saridunak Amets Aranbarri eta Hoda Abdelouahab izan dira. Enpresa taldeak esker ona adierazi nahi die lehiaketan parte hartu duten guztiei.



Amets Aranbarri Danobatgroupen bulegoetan jaso zuen saria.

**SAN SILBESTREA**  
*Andoainaren*

11:30.  
Zumea plaza.  
5,3 km.

Abenduaren 30era arte: 6€  
Abenduaren 31n: 8€

Abenduak 31, astelehena  
Izena eman: [herrikrosa.eus](http://herrikrosa.eus)

- Helmugan ura eta fruta.
- Mozorro onenari saria.
- Komertzioek banatutako sariak.
- Kiroldegian dutxak eta konsigna zerbitzua.
- 16 urte azpikoak gurasoen baimena beharko dute.

LAGUNTZAILE: **AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**LASTERKA ITZULI**

# Puntako kirol instalazioa eraikiko dute Urnietan

Kiroldegiaren eraberritzerako egitasmoa ezagutzera eman du Udalak, batzarraldian oniritzia eman eta gero. Federatu mailako taldeak, Eskola Kirola egitasmoa, lagun taldeak eta norbanakoak... denen beharrak kontutan hartu dituztela adierazi dute

## Erredakzioa URNIETA

2019tik aurrera argia ikusiko duen behin-behineko egitasmoak sei mila eta bostehun metro karratuko hedadura izango du, iraganean aztertu zirenak baino gehiago. Orduetik hona zer da aldatu dena? Udalak adierazi duenez, egitasmoa handitu egin da estalitako padel pista, eskaladarako gunee berria, bana-kako aldagela gehiago eta erabilera anitzeko areto gehiago egingo direlako. Azterketa geotekniko baten arabera, gainera, lurzorua hobetzea aholkatzen zen. Horrek guztiak egitasmoaren kostua nabarmen handitu du, iraganean aipatzen ziren



Etorkezuneko Kiroldegiaren maketa. URNIETAKOUDALA

5 milioi eurotik 8 milioi eurora pasaz. Udalak aditzera eman duenez, behin egitasmo handia egiten hasita, etorkizunera begira tajuzko egitasmoa lantzea hobetsi du: "Ikuspegia etorkizunean jarrita jokatu da, Urnietak garatzen jarraituko duela kontuan hartuta eta hurrengo hogeita hamar urteetarako instalazioa izango dela jakinda. Beraz, azterketak hurrengo urteetan sortzen joango diren beharrak ere aurreikusten ditu, eta behar horiei erantzuna emango die. Kiroldegia hobekuntza gehiago hartzeko diseinaturik dago, eta etorkizunean beste mota bateko beharren bat sortuko balitz ere erantzuteko aukera eskainiko luke". Erabaki potoloa azaroaren 27ko Udal batzarraldian hartu zen, EAJ-PNV eta EH Bilduren aldeko botoekin. PSE-EE aurka agertu zen.

## Nolakoa izango da etorkizuneko kiroldegia?

Aldaketa handi samarra espero da: "Eraikinaren sarrera igerilekuaren solariumaren alboan kokatuko da, egun teniseko pis-

tak dauden lekuan. Eraikina bertikalki zatituta geratuko da eta erabiltzaileak lehen bi solairutan pilotuko dira. Beheko solairuan aldagelak eta gela desberdinak kokatuko dira: muskulazioa, spinninga, arte martzialak, areto balioaniztuna... Lehen solairuan kirol pista, padeleko kantxak eta teniseko pista egongo dira. Ikusleen eremua osterara, bigarren solairuan kokatuko da". Futbol zelaia, atletismoko pista, eskubaloiko pista eta igerilekua bere horretan mantenduko dira.

Puntako instalazioak izango direla iragarri dute: "Ez die inbidiarik izango inguruko kiroldegiei". Tabernarik ez da aurreikusten egitasmoan, ezta estalitako igerilekurik ere. Udan tabernaren funtzioa egin dezakeen egitura ipiniko dute, igerileku irekiaren ondoan. Urnietako herriaren tamaina kontutan hartuta, igerilekua ixtea ez dela bideragarria ondorioztatu dute.

Ostiral honetan obraren pleguak onartuko dituzte eta, okerrik ezean, udan Urnietako kiroldegi berria eraikitzeari ekingo diote.



## ANDOAINGO UDALA

# Andoain bizi 2018-2019



**Abenduak 20, osteguna**  
18:00 Andoaingo Udala Musika Eskolako tailerretako ikasleen Gabonetako kontzertua Bastero Kulturgunean.

**Abenduak 21, ostirala**  
SAN TOMAS EGUNA  
Txistorra postuak jartzeko aukera Juanita Alkain plazatxoan. Eskerak egiteko azken eguna abenduaren 14a.

**Abenduak 22, larunbata**  
12:00 Soinuak musika eskolako ikasleen kontzertua Bastero Kulturgunean.  
18:00 Olientzero, gaztaina erreak, txokolatada eta opariak. Etxeberrieta plazan, jai-batzordeak antolatua.  
18:00-21:00 Bertso poteoa eta trikixia.

**Abenduak 23, igandea**  
12:00 Gipuzkoako haur abesbatza federatuaren Gabonetako kontzertua Basteron.

**Abenduak 24, astelehena**  
Olientzero eta Mari Domingiri harrera, Aita Larramendi ikastolak antolatua.  
17:30 Irteera Basteroko plazatik.  
18:30 Etorrerara Espigoira.

**Abenduak 26 - 29 GAZTE ASTEA**

- Asteazkena 26:** ABBATE FRONTOIA: 09:30 Pala. 11:00 Esku pilota. GAZTE LOKALA: 17:00 Antzerki tailerra.
- Osteguna 27:** GOIKOPLAZA: 10:00 Gazte errorrika. GAZTE LOKALA: 16:30 Futbolina. 18:00 Ping-pong.
- Ostirala 28:** URIGAIN: 11:00 Krosa. GAZTE LOKALA: 17:00 Zumba.
- Larunbata 29:** GAZTE LOKALA: 17:00 Gazte Asteko itxiera.

**Abenduak 29, larunbata**  
11:30-13:30 Gaztain erreak Juanita Alkain plazatxoan (eguraldi txarrarekin, Ondarretan). Haur, gazte eta helduentzat, Urki Dantza taldeak antolatua.

**Abenduak 26-30 IKUSZIRKUS.**  
20:00 Zirko jaialdia Basteron.

- Asteazkena 26:** Malicia!CIA. El punto de la i.
- Osteguna 27:** El A circo. InTarsi.
- Ostirala 28:** Cia. Capicua. Entredos.
- Larunbata 29:** (Cia)². Mur
- Igandea 30:** Cia. Nueveuno. Sinergia 3.0

**Abenduak 30, igandea**  
11:00-14:00 / 16:00-20:00  
Gabonetako Haur Parkea Allurralde kiroldegian.

**Abenduak 31, astelehena**  
11:00-14:00 Gabonetako Haur Parkea Allurralde kiroldegian.  
11:00-13:00 Kale animazioa Olagain txistulari elkartearekin.  
11:30 San Silvestre lasterketa Zumea plazan.  
12:00-13:15 Pajeen irteera Errege Magoei zuzendutako eskutitzak jasotzeko.  
IBILBIDEA: Goikoplaza, Bastero Kulturgunea, Kale Nagusia, Zumea plaza, Larramendi kalea.  
GELDIALDIAK: Bastero Kulturgunean, Allurraldeko Gabonetako Haur Parkean eta Zumea plazan.  
La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatua.  
00:45-04:00 Urtezahar gaueko DJ festa Nafarroa plazan.

**Urtarrilak 5, larunbata**  
Errege Magoen etorrera, La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatua.  
17:00 Erregeak, pajek eta laguntzaileak Zahar Egoitzara, bertako aitona-amonei opariak banatzera.  
18:25 Antortzen piztuera Joanleitzaneaberri baserrian.  
18:30 Zumeatarra elkartearen paretik irteera.  
GELDIALDIAK: Zumea plaza, Santa Krutz zubia eta Kale Nagusia.  
19:30 Udaletzeko balkoitik Errege Magoen adierazpena.

Laguntzaileak

